2021eko azaroaren 16ko herriko kontseiluaren bilduma

Présents / Hor zirenak : Mmes DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, OXARANGO, PEREZ, SABALOUE et MM BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU, BARNECHE et BARBIER
Absent excusé / Ezin etorria jakinarazia zutenak : Sabine ETCHEVERRY
Secrétaire de séance / Bilkurako idazkaria : OXARANGO Maité

1. Aurrekontu orokorraren aldatzeko 2. erabakia

INBERTSIOAK	
GASTUAK	
2315 – Materialaren erostea – 141. eragiketa	1000
2315 – Merkataritzako lokalen antolamendua – 173. eragiketa	-1000
2313 – Eskola publikoko obrak – 171. eragiketa	2000
2313 – Eskolako kantinaren handitzea – 175. eragiketa	-2000
OROTARA	**0**

Aldeko erabakia

Ehorzketen arloko aurrekontuaren aldatzeko 1. erabakia

INBERTSIOAK	
GASTUAK	
2138 – Gainerateko eraikuntzak (hilobiak)	4534
OROTARA	4534
IRABAZIAK	
021 – Funtzionamendu saileko biramendua	4534
OROTARA	4534
FUNTZIONAMENDUA	
GASTUAK	
023 – Inbertsio saileko biramendua	4534
611 – Azpikontratazio orokorra	-4074
OROTARA	460
IRABAZIAK	
706 – Zerbitzu emateak	460
OROTARA	460

Aldeko erabakia

2. Lan gehigarrien kudeaketa

Lan gehigarriak egin daitezkeen lanpostuen zerrendaren finkatzea eta ordu osagarrien kalte-ordainen pagatzeko moldeen ezartzea herriko etxeari dagokio.

1 – Onuradun posibleak

Langile hauek lirateke:
- funtzionario ikastunak eta titularrak
- zuzenbide publikoko kontratupeko langileak, mota eta hierarkia-maila bereko eginkizunak dituzten funtzionarioendako finkatu oinarri berekin.

2 – Enplegu onuradunak
Lan gehigarriak enplegu horietan egiten ahalko lirateke:
- Herriko etxeko idazkaria (lurraldeko administrazio laguntzaileen eta lurraldeko erredaktoreen enplegu-koadroa)
- Laguntzaile teknikoa, bideetako, eraikinetako eta hilerriko gaitasun anitzeko mantentze langilea (lurraldeko laguntzaile teknikoen enplegu-koadroa)
- ATSEM (Animazio laguntzailea)
- enplegu horiei dagozkien eginkizunak betetzen dituzten kontratupeko langileen enpleguak

Oren gehigarriak:
Oren gehigarrien balioa ez da emendatuko.
Lanaldi osoko langileei dagokien lan-zikloaren iraupenaz gain eginen diren orenen balioa emendatuko da, indarrean dagoen tasaren arabera.

Oren gehigarriak:
Oren gehigarrien kopurua hilabetean 25era mugatua da; horien ordaintzeko, lan gehigarriendako oren sariei buruzko 2002ko urtarrilaren 14ko 2002-60 dekretuan finkatu erabakien arabera jokatuko da.

Oren horiek ez dira beharrez ordainduko; lurraldeko agintaritzak hala erabakitzen badu, oren horiek errekuperatzen ahalko dira. Bi konpentsazio molde horiek ezin dira metatu.

Batzorde teknikoak aldeko iritzia eman ondotik, lan gehigarrien kudeaketa herriko langile guzientzat ezartzea proposatu da.

Aldeko erabakia

3. Enplegu baten lan denboraren aldatzea

Lanaldi ez osoko zerbitzu teknikoetako langile enplegu iraunkor baten asteko lan denbora aldatu behar da (orain astean 13 orenekoa da), SIVU BIGABAT egituraren baitan jantegiaren antolaketa berriaren plantan emateko.

Batzorde teknikoak aldeko iritzia eman ondotik, 2021eko abenduaren 1.etik goiti zerbitzu teknikoetako langile enplegu baten asteko batez besteko lan denbora 13 orenetik 17 orenera pasatzea proposatu da.

Aldeko erabakia

4. Herriko etxearen berritzea – Igogailuei dagokien multzoa

Igogailuei dagokien multzoarentzat mantentze lanendako kontratu proposamena eskuratu ondoan, multzoa MYD'L enpresari esleitzea proposatu da, 21 400€-ren truke.

Aldeko erabakia

5.a B 1426 lursaileko lotizamendurako aurrekontu erantsi baten sortzea

Auzapezak kontseiluari B 1426 lursailean dauden 4 multzoren eraikuntzarako egokitzeko proiektua oroitarazi dio… Zehaztu du proiektu horrendako aurrekontu erantsi bat sortu behar dela, zenbatekoak gordin agertzen dituena, eragiketa BEZ zergapekoa baita.
Eragiketak 2022. urtean hasiko beharko luke, baimen guziak lortzen baldin badira.

Kontseilua aurrekontu erantsiaren sortzea eta "Harrietakoborda" izenaren ematea erabakitzera deitu du.

Aldeko erabakia

5.b B 1429 lursaileko lotizamendurako aurrekontu erantsi baten sortzea

Auzapezak kontseiluari B 1426 lursailean dauden 4 multzoren eraikuntzarako egokitzeko proiektua oroitarazi dio… Zehaztu du proiektu horrendako aurrekontu erantsi bat sortu behar dela, zenbatekoak gordin agertzen dituena, eragiketa BEZ zergapekoa baita.
Eragiketak 2022. urtean hasiko beharko luke, baimen guziak lortzen baldin badira.

Kontseilua aurrekontu erantsiaren sortzea eta "Landaluxia" izenaren ematea erabakitzera deitu du.

Aldeko erabakia

Gainerateko gaiak:

Beltzagitearen berritzeari buruzko obragilearen hautatzea:
3 bulegoren proposamenak ukan ditugu: Alaman/Mac Donald/Barbier, Hemen Errandonea/Etchegaray bulegoa eta Maindi Murua bulegoa. Bilkuran ziren jendeek eta herriaz kanpoko batzordeak bigarrenak lituzkete lehenetsiko; beraz, proiektua haiekin segitzea proposatzen dizue (proiektuaren diseinua, gauzatzeko epea eta ordainsariak direla eta).
Herriko kontseilua ados da.

Xokoa deitu landa bidexkari buruzko inkesta publikoa bukatu da. Herritar bat transakzioaren kontra agertu da. Inkesta komisarioak iritzia emanen du, eta hurrengo herriko kontseiluan horri buruz deliberatu beharko da (bi hilabeteko epea iragan eta).

DARRAIDOU: baserrien alokatzeko kontratuak. Hautagaitza bakarra: Julien Darraidou izanen da alokairu kontratuen titularra.

Arotcarena B1412 lursailaren erosteko lehentasuna… urriaren 26an herriko etxera iritsi den besterentzeko xede aitorpenaren ondorioz, EPFL erakundea desmartxen egitera deitua izan da. EPFLaren administrazio kontseiluak eragiketaren aldeko iritzia eman du. Euskal Hirigune Elkargoko lurreko zergen zerbitzuari ere dei egin zaio, hiri eremuko lursailen erosteko lehentasuna EPFLren esku utz dezan.

Abenduaren 4an, 20:00etan….. Axut konpainiaren antzezlana, denen egoitzan, kabalkadak antolaturik.

Téléthon, abenduaren 3an eta 4an: ostiral arratsean, dantza; eta larunbateko goiz hondarrean, bizikletaz Oragarrerantz, taldeka.

Bilkura 22:00etan bururatu da.

Arño Gastambide auzapeza